



ORTULAGUNTZA zerbitzurako lan-deialdia

Debagoiena eskualdean martxan jarriko den ORTULAGUNTZA zerbitzurako lan-deialdia.

Baratzegintza profesionalean ari diren ekoizle txikiak lagundu, hauetan erreleboa bermatu eta proiektu berrien sorrera sustatzea helburua duen laguntza-sistema martxan jarriko da.

EZINBESTEKO BALDINTZAK:

- Baratzegintzan lan-esperientzia izatea*
- B-motako gida-baimena eta ibilgailuaren disponibilitatea*

HONAKO HAUEK BALORATUKO DIRA:

- Nekazaritza arloko formakuntza.
- Baratzegintza agroekologikoan formakuntza.
- Baratzegintza agroekologikoan esperientzia izatea.
- Baratzegintzak bailaran duen egoeraren inguruko ezagutza izatea.
- Produktu fitosanitarioen aplikatzaile txartela izatea.
- Lehen sektoreak duen balio estrategikoarekin kontzientzientzia izatea.
- Euskal hiztuna izatea.
- Harremanetarako gaitasuna, proiektu kolektiboen kudeaketan eta talde-dinamizazioan esperientzia izatea.
- Goiz eta arratsaldean lan egiteko disponibilitatea.

*Esperientzia eta formazioa baloratzeko, behar diren agirien bidez egiaztatuko dira.

ESKAITZEN DA:

LAN ALDI OSOKO KONTRATUA.

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK ETA EGINKIZUNAK.

- Eskualdeko baratzegintza proiektuetan ortuko lanetan aritzea: eskuzko lanak: otarrak eta eskariak prestatu, mantenu lanak, makineriaren erabilera...
- Bailarako nekazarien arteko saretzea bultzatzea, erosketa kolektiboen koordinazioan adibidez.
- Onuradunen beharrak identifikatzea, eta zerbitzuaren koordinazio eta dinamizazio lan-taldean parte-hartzea.

KURRICULUMNA BIDALTZEKO EPEA: **abenduak 15erarte.**
DEBA GARAIA Elkartea, Urteaga kalea, 21, 20570 BERGARA
debagaraia@debagaraia.eus